



2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ARRAGUA

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2021-10-04	19:00	21:00

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Olga Leibar, Enekoitz Markos, Goratz Gezala			
Herritarrak:	Euskaraz: 15		Elebitan: 4	
	Emakumezkoak: 13		Gizonezkoak: 6	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 3	51-65 urte: 11	>66 urte: 5

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Zinegotzien aurkezpena eta bileraren egitura azaldu da.
2021 urtea	2021ko egoera azaldu da. Covid-19aren eragina eta egindako lanak.
2022eko aurreikuspena	2022ko aurreikuspena azaldu da. Kultur etxearen gastuen ordainketa ea 100%ean udalaren gain dauden galdetzen da. Erantzun da oraingoz baietz, baina saiatzen ari garela lortzen kanpo finantzaketa ere.
Auzoa	Auzoaz hitz egiteko auzoaren garapena eta plan orokorreko planoak eraman dira diapositiban. Horren inguruan ekarpenak egin dituzte auzotarrek: <ul style="list-style-type: none">- Auzokideak etxebizitza proiektuaz galdetzen dute. Eusko Jaurlaritzari exijitzea etxe horiek zein baldintzatan ematen diren, zein bermerekin egongo diren bertan bizitzen (Donostiako kasua aipatzen da) etab.- Etxeko proiektuaren baitan; 4 eta 5 etxeen arteko errepidea norantza bakarrekoa izan dadila eskatzen da, horrela jendea ez etortzeko Lintzirinetik auzoa gurutzatu eta biribilgunera atera.

- 2.eraikina, planoan eliza jartzen duena, izan dadila erabilera anitzeko aretoa, auzo lokala,...

Zerbait zehatza jakitean proiektuaren inguruan, auzoan kartelak jarri eta batzarrera deitzea eskatzen dute auzotarrak.

Laburpena egiten da aurreko urtetako eskaerak gogoratuz eta hauen egoera aipatuz.

Eskaera berriak:

- Ganboxa bideko parkin berrian motorrak uzteko lekurik ez dago markatuta eta arazo bat bilakatu da. Motorrentzat eremu bat jartzea eskatu da.
- Bizikidetza egoki baterako: Zaborrak lurrera ez bota, txakurrak lotuta eraman behar dira, txakur parkea sortu beharra,...
- Bizilagun batek errepasso bat egiten du bizikidetza arazoei dagokienez.
- Larrezabaleta: Garbiketa astean behin egiten dela esaten da, barredorekin, goizeko 7tan. Ez dela nabaritzen barredora pasa den ala ez. Abiadura handiz ibiltzen dira kotxeak. Ez dira errespetatzen zirkulazio norantzak (errepidea ez dago markaturik, agian markatzearekin hobetuko litzateke). Larrezabaleta goiko aldean parke bat dago eta errepasso bat eman diezaiotela parke horri.
- Larrezabaleta goiko parkea: 3 banku daude, jarri pertsona helduentzat makina bat.
- Larrezabaleta bukaeran (Goiko eskola) pareta horretan baranda bat jartzea, irristakorra da eta lurra nahiz eta orain garbitu den oso irristakor dago (agian zorua aldatu).
- Aldeguna elkarte atzean dagoen parkea ere txukundu.
- Mending, Orlegimendi, ez dago umeentzat parke edo jostalekurik.
- Mendingen euria fuerte egiten duenean, Arizabalotik ura errepidetik etortzen da kunetak ez daudelako txukun mantenduta. Kunetak garbitu eta alkantarilla gehiago jarri beharko lirateke.
- Belarra mozten denean, makina traktorarekin, belarra ez dute biltzen eta kuneta dena belar eta adaxkaz betetzen da.
- Geltokiko sarreran eskuinean dagoen zatia oso gaizki dago utzita, obraren "errematea" ea zeini dagokion eta ea txukundu daitekeen.



2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<ul style="list-style-type: none">- Autopistako soinua kentzen duten panelak ea handiago jarri daitezkeen edo berriak, ... galdetzeko egoeraz Bidegiri.- Beheko auzoko nomenklaturak aldatu (Lartzabal etxadikoak). Kalearen izena erreferentzi hartuta berriz izendatu etxeak. Kalearen izena + zenbakia hartuta erreferentzizat. Arazo asko dauzkate postariak, letrak eta zenbakiak nahasten direlako.- Mendin eta Orlegimendin barredora ostiralean pasatzen da. Zaldiak pasatzen dira asteburuan eta barredora ostiral arte pasatzen ez denez, dena kakaz beteta gelditzen da aste osoan.- Zaldiak eskutik hartuta joan behar dute jendea bizi den tokian, zeren kotxeekin aurten 4 istripu edo gertatu dira ostikoa emanda. Kartelak jartzea eskatzen da zaldiak eskuan eramateko gogoratu.- Torre Arkale: Oso ur presio gutxi dago torrean eta "zikina" ateratzen da hasieran.- Torre Arkale: Ea jarri daitezkeen parapeto bat zakar ontziak jartzeko gantxoak dauden lekuan. Aluminiozko hesitxo bat edo, haizeak ez dezan zabaldu zakarra.
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,32
bilera ongi gidatu da	8,26
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,33
Auzotar kopurua	5,53
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,63
Saioa probetxugarria izan al da?	8,42
Egunaren egokitasuna	8,58
Orduaren egokitasuna	8,37
Lekuaren egokitasuna	8,21